

Zangoza / 2020

# KULTUR AGENDA

iraila



Ayuntamiento de  
Sangüesa/Zangoza



CASA DE CULTURA SANGÜESA VALLESANTORO  
PALACIO VALLESANTORO



Nafarroako  
Gobernua



NAFARROAKO  
ANTZOKI SAREA

## Vallesantoro Jauregia/Kultura-etxea

Vallesantoro Jauregia/Kultura-etxeko **arreta ordutegia** aurrez aurreko kudeaketa administratiboak egiteko: asteartetik ostiralera, 12:00etatik 14:00etara. 12:00etatik 13:00era 65 urtetik gorakoek lehentasuna izanen dute.


Gomendatzen da **lehentasunik ez duten kudeaketak** aurrez aurre ez egitea oraingoz, 948 870 251 telefonora deituz edo infocultura@sanguesa.es helbidera posta bat bidaliz. Goizez, astelehenetik ostiralera, 09:30etik 14:00etara, eta arratsaldez, 18:00etatik 21:00etara, asteartetik larunbatera.

Vallesantoro Jauregia/Kultura-etxea eta Erakusketa Aretoa **bisitatzeko ordutegia** honako hau da: asteartetik larunbatera, 11.30etik 14:00etara eta 19:00etatik 21:00etara, eta igande eta jaiegunetan 12:00etatik 14:00etara. 19:00etatik 20:00etara 65 urtetik gorakoek lehentasuna izanen dute.

### Vallesantoro Jauregia/Kultura-etxeko Lorategian eginen diren

**kontzertuetarako sarrera** doakoa izanen da. Kontzertura sartzeko Vallesantoro Jauregia/Kultura-etxeko lorategiko atetik. Atea kontzertua hasi baino 30 minuto lehenago zabalduko da. **Helbidea:** Alfonso el Batallador, 20. **Tfnoa.:** 948 870 251. Kultura-agenda posta elektronikotik jaso nahi baduzu, helbide honetara eska dezakezu: infocultura@sanguesa.es. Facebooken eta www.sanguesacultura.es web-orrian gure kultura-agendari segi diezaiokezu eta datuak babesteko legea www.sanguesa.es web-orrian kontsultatu:

 [www.facebook.com/culturasanguesa](http://www.facebook.com/culturasanguesa)

 [www.instagram.com/culturasanguesa](http://www.instagram.com/culturasanguesa)

## Karmengo Entzunaretoa

**Aldez aurreko sarreren salmenta: irailaren 29tik aitzina** Vallesantoro Jauregia/Kultura-etxean, asteartetik ostiralera, 12:00etatik 14:00etara eta 19:00etatik 21:00etara, eta Internetetik [www.sanguesacultura.es](http://www.sanguesacultura.es) eta [www.sanguesa.es](http://www.sanguesa.es) web-orrien bidez. **Tfnoa:** 948 870 251. Funtzioaren egunean sarrerak internetetik baino ezin izanen dira hartu. Ikuskizunen egunetan ez da salmentarik Entzunaretoako txartel-leihatilan. Ikuskizunaren arabera, Udalak sarreren kopurua zehaztuko du. Behin hartuz gero, ez da aldaketarik, ezta itzultzerik ere onartuko. Ikuskizunaren etena sarreren zenbatekoa itzultzeko kausa bakarra izango da.



**Beharpenak Gazte txartelarekin:** 14 eta 30 urte bitartekoa bazara, hala adierazten den saioetan beharpenez gozatu ahal izanen zara. Gazte txartela leihatilan aurkeztu beharko da sarrera entzunaretoan nahiz Interneten erosi bada.



### ENTZUMENA HOBETZEKO ANTZERKI IRISGARRIA

Karmengo Entzunaretoak badauka begizta magnetikoko sistema bat inguruko hotsa kendu ahal izateko.

Hartara, entzumen-arazoak dituzten lagunek ikuskizunehz hobeki gozaten ahal dira. ERNE! sistema hau audiofonia erabiltzen dutenek ez ezik ongi entzuten ez dutenek ere erabiltzen ahal dute inolako aparaturik eraman ez arren.

Bi kasuetan entzungailua edo begizta aretoko langileei eskatu behar zaizkie.

### ANTZERKI IRISGARRIA MUGIKORTASUN MURRIZTUA DUTEN LAGUNENDAKO. El

Karmengo Entzunaretoak mugikortasun murriztua duten lagunendako gune bat gordetzen du. Eserleku hauetako bat hartu behar bada edo erreserba hau egiteko laguntza behar baduzue, jarri harremanetan Kultura-zerbitzuarekin [infocultura@sanguesa.es](mailto:infocultura@sanguesa.es) posta elektronikoan edo deitu 948870251 telefonora edo adierazi txartel-leihatilan erosketa egiterakoan.

**Zangozako Udalak ez du bere gain ardurarik hartzen, aldatzen diren edo betetzen ez diren ekitaldiengatik, baldin eta hauek egitarau honetan ez badira aditzaera eman.**

# KULTUR AGENDA

## iraila



- 1 As Zangozako Albreteko Enrique II. Kultura-Taldearen antzinako argazki erakusketa (Irailaren 20a bitarte) 4. orr.  
As Eguneroko bizitza Erdi Aroko Zangozan (Irailaren 6a bitarte) 4. orr.
- 2 Az Musika, antzerkia eta posesia. "Mucho más que dos". Alberto San Juan eta Fernando Egozcue 5. orr.
- 3 Og
- 4 Os Musika. "Sonakay Guztiekin". Sonakay taldea 6. orr.
- 5 Sá
- 6** Ig
- 
- 7 Al Oinarrizko gaitasun digitalei buruzko ikastaroak. Pertsonalak nahiz enplegurako I (Irailaren 11 bitarte) 8. orr.
- 8 As Ikuskizunen gonbidapenak eskuragai
- 9 Az
- 10 Og
- 11 Os
- 12 La
- 13** Ig
- 
- 14 Al Oinarrizko gaitasun digitalei buruzko ikastaroak. Pertsonalak nahiz enplegurako II (Irailaren 18a bitarte) 8. orr.
- 15 As
- 16 Az
- 17 Og
- 18 Os
- 19 La
- 20** Ig
- 
- 21 Al
- 22 As
- 23 Az Ipuin-kontalaria (gaztelaniaz). "Cuentos a cántaros" 7. orr.
- 24 Og "Papeles y telas 2019" Erakusketa (urriaren 12a bitarte) 4. orr.  
Og Alfonso Ascuncerekin topaketa 5. orr.
- 25 Os
- 26 La
- 27** Ig
- 
- 28 Al
- 29 As Ipuin-kontalaria (euskaraz). "Flobin eta txano majikoa" 7. orr.  
As Antzokiko ikuskizunetarako sarrerak salgai
- 30 Az
- urria**
- 3 La Ikuskizun musikala. "Incorrectas" 9. orr.
- 17 La Dantza garaikidea. "Saioak" 9. orr.
- 24 La Musika, keinu-antzerkia eta umorea. "Maestrissimo" 10. orr.
- 25** Ig Antzerkia familian. "La Casa más pequeña" 10. orr.
- 31 La Antzerkia. "Llloviendo Ranas" 10. orr.

Azaleko irudia: "Mucho más que dos".

## Erakusketak



**Zangozako Albretoko Enrique II. Kultura-Taldearen antzinako argazki erakusketa**

**IRAILAREN 20A BITARTE**

**Lekua:** Vallesantoro Jauregia/ Kultura-etxeko Beheko Solairuko Erakusketa Aretoa.

**Antolatzailea:** "Albretoko Enrique II." Kultura-taldea.

**Laguntzailea:** Nafarroako Gobernua.



**"Eguneroko bizitza Erdi Aroko Zangozan"**

**IRAILAREN 6A BITARTE**

"Eguneroko bizitza Erdi Aroko Zangozan" izenburupean, erakustaldiak Hiribilduaren historiaren ikuspegi hurbila eskaintzen du, Alfontso Borrokariak XII. mendean sortu zuenetik eta ondorengo garapena: bizimoduak elikaduraren bidez, moneta edo janzkera. Baita Zangozako ezaugarriak nabarmenak ere, esate baterako, haren kokapena ibilbide historikoen barruan: Donejakue Bidea eta Almadiazainen Ibilbidea.

**Lekua:** Vallesantoro Jauregia/Kultura-etxeko Bigarren Solairuko Erakusketa Aretoa.

**Laguntzailea:** Nafarroako Gobernua.



**"Papeles y telas 2019"**

ALFONSO ASCUNCE

**IRAILAREN 24TIK URRIAREN 12RA**

"Erakusketa honetan hainbat interes biltzen dira. Denbora, paradoxa, jolasa, biluztasuna edo gordintasunarekin lotutako lana da. Memoria propioa eta kolektiboa. Berezitasuna, bakea, gerra, anekdota... Pintura bera eta bere hizkuntza da benetan presente dagoena; argi dagoena, lausoak, pultsua, hotza, beroa, argia, iluna ... bezalako gako sinpleak kontuan hartuta". *Alfonso Ascunce*

**Lekua:** Zangozako Vallesantoro Jauregia/Kultura-etxeko Erakusketa Aretoa.

**Laguntzailea:** Nafarroako Gobernua.

**Bisita ordutegia:** asteartetik larunbatera, 11:30etik 14:00etara eta 19:00etatik 21:00etara. Igande eta jaiegunetan 12:00etatik 14:00etara.

## Erakusketak



**Alfonso Ascunce** artistarekin topaketa

**IRAILAK 24, OSTEGUNA**

**Ordua:** 19:00

**Lekua:** Zangozako Vallesantoro

Jauregia/Kultura-etxeko Erakusketa Aretoa

**Sarrera:** Doan edukiera bete arte. Gonbidapenak aldeztu aurretik hartu behar dira. Gehienez ere, 4na sarrera pertsonako. **Gonbidapenak**

**irailaren 8tik aurrera Kultura-etxean hartu**

**ahal izanen dira**, asteartetik ostiralera,

12:00etatik 14:00etara eta eta 19:00etatik

21:00etara. Gonbidapenak iritsiera-ordenaren

arabera emanen dira. Gonbidapena erakutsi

beharko da sartu ahal izateko. Ekitaldia behin

hasita, aretoan sartu ahalko da edukiera beteta

ez badago.

## Arte eszenikoak

Vallesantoro Jauregia/Kultura-etxeko Lorategian



**MUSIKA, ANTZERKIA ETA POESIA**

**“Mucho más que dos”**

ALBERTO SAN JUAN & FERNANDO EGOZCUE

**IRAILAK 2, ASTEAZKENA**

**Konpainia:** Alberto San Juan eta Fernando

Egozcue. **Jatorrizko musika:** Fernando Egozcue.

**Dramaturgia:** Alberto San Juan.

Alberto San Juanek eta Fernando Egozcuek sei

urte baino gehiago daramatzate elkarrekin

lanean. Antzerkia, musika eta poesia, bizitza,

bizitza ona baieztatzeko borondatek abiatzen

den ikuskizun batean. Benedetti, Lorca, Lope de

Vega, Calderón de la Barca, Sor Juana Inés de la

Cruz, Gloria Fuertes eta baita Seattle indiarra ere,

bi artisten arteko elkarlan luzearen oinarri dira.

**Ikusleak:** Gazteak eta helduak.

**Iraupena:** 70 minutu gutxi gorabehera.

**Ordua:** 19:30.

**Lekua:** Vallesantoro Jauregia/Kultura-etxeko

Lorategia.

**Sarrera:** Doan edukiera bete arte (140 eserleku).

Argibide gehago hurrengo orrialdean.

**Laguntzailea:** Nafarroako Gobernua.



# Arte eszenikoak

Vallesantoro Jauregia/Kultura-etxeko  
Lorategian



## FUSIOA, FLAMENKOA ETA EUSKARA

### “Sonakay Guztiekin”

SONAKAY

### IRAILAK 4, OSTIRALA

**Musikariak:** Jonatan Camacho (Yoni), ahotsa; David Escudero, gitarra; David Bernárdez, Perkusioa; Ramón Vélez, 2. gitarra; Jose Luis Jiménez (Beltza), Baxua; Óscar De la Ó, 2. perkusioa.

*'Sonakay Denontzat'* diskoarekin 2018an debuta egin ostean, disko berria eta ikuskizuna besapean hartuta itzuli dira flamenko gipuzkoarrak: *'Sonakay Guztiekin'*. Izan ere, izenburua, ez gehiago ez gutxiago, proiektu berri honetan aurkitzen dugunaren isla da: Sonakay 14 artista handirekin elkartu da eta 11 abestietatik 8tan parte hartu dute hauek. Proiektu berezi hau adiskidetasunaren eta artearen emaitza da.

Sonakay euskal zein ijito sustrai sendoak dituen talde euskalduna da. 2015ean euskal musikaren historiako benetako harribitxien bertsioak egiten hasi zen bere bi kulturen bidez: flamenkoa eta euskara. Got Talent España 2018 saio ezagunean esku hartu zuen, eta, besteak beste, Mikel Laboaren "Txoria txori" bertsioari esker, publikoa eta epaimahaia zutik jarri zituzten.

**Ikusleak:** Gazteak eta helduak.

**Iraupena:** 80 minutu gutxi gorabehera.

**Ordua:** 19:30.

**Laguntzailea:** Nafarroako Gobernua.

**Sarrera:** Doan edukiera bete arte (140 eserleku). Lorategira sartu ahal izateko, gonbidapenak hartu behar dira aldeaz aurretik. Gehienez ere 4na sarrera hartu ahal izanen dira pertsonako eta ekitaldi bakoitzeko.

**Sarrerak hartzea:** [www.sanguesacultura.es](http://www.sanguesacultura.es) eta/edo [www.sanguesa.es](http://www.sanguesa.es) web-orrietan. Salbuespen gisa, sarrerak Kultura-etxean bertan hartu ahal izanen dira, asteartetik ostiralera, 12:00etatik 14:00etara, eta 65 urtetik gorakoek izanen dute horretarako lehentasuna.

**Covid19 dela kausa harturiko neurriak:** jendeak aulki bana izanen du esleituta pertsona bakoitzeko (1,5 m-ko pertsonarteko distantzia), eta bertan eserita egon beharko du kontzertua hasten denetik amaitzen den arte. Jendeak uneoro jarraitu beharko ditu Kultura-etxeko langileen jarraibideak. Gogoratu sarreran eta irteeran gel hidroalkoholikoa erabiltzea eta distantzia soziala mantentzea. Une bakoitzean agintariak emandako edukiera-neurrietara egokitzuz, sartu ahal izanen diren pertsonen gehieneko kopurua adieraziko dugu. Osasun-gomendioei jarraituz, ez dugu material inprimaturik banatuko, hala nola eskuko programak edo antzekoak. Nahitaezkoa da maskara mantentzea emanaldi osoan. Zure sarrera erakutsi beharko duzu sartu ahal izateko eta saioa behin hasita ezin izanen da sartu. Euria eginez gero bertan behera geratuko da ekitaldia. Lorategiko atea, jendea sar dadin, ekitaldia hasi baino 30 minutu lehenago irekiko da. Sarreran nahiz irteeran taldeak sortzea saiestu behar da.

## Ipuin-kontalaria



**“Cuentos a cántaros”**  
(gaztelaniazko ipuin-kontalaria)

SERGIO DE ANDRÉS

**IRAILAK 23, ASTEAZKENA**

Badator ekaitza. Ipuinez beteriko hodeiak Zangozarantz doaz. Gogotik botako du!

**“Flobin eta txano majikoa”**  
(euskarazko ipuin-kontalaria)

XABIER FLAMARIQUE

**IRAILAK 29, ASTEARTEA**

Gure herrira heldu da Flobin. Guztiekin jolasteko ipuin asko dakar.



**Ikusleak:** 3 eta 8 urte bitarteko umeak. Adingabeei helduek lagundu behar diete.

**Sarrera:** Doan edukiera bete arte.

Gonbidapenak aldeztu aurretik hartu behar dira. Gehienez ere, 4na sarrera pertsonako eta saioko. Sarrerek ez daude zenbakituta. Ikusleak iritsiera-ordenaren arabera eseriko dira. Gonbidapena erakutsi beharko duzu sartu ahal izateko. Ekitaldia behin hasita, ezin izanen da sartu. **Gonbidapenak irailaren 8tik aurrera Kultura-etxean hartu ahal izanen dira**, asteartetik ostiralera, 12:00etatik 14:00etara eta eta 19:00etatik 21:00etara.

**Ordua:** 18:30.

**Iraupena:** 60 minutu gutxi gorabehera.

**Lekua:** Vallesantoro Jauregia/Kultura-etxeko Erabilera Anitzeko Aretoa.

**Laguntzailea:** Nafarroako Gobernua.

**Covid19 dela kausa harturiko neurriak:** jendeak aulki bana izanen du esleituta pertsona bakoitzeko (bai helduak bai umeak), eta bertan eserita egon beharko du ipuin-kontalaria hasten denetik amaitzen den arte. Beharrezkoa da sarreran zein irteeran gel hidroalkoholikoa erabiltzea eta distantzia soziala mantentzea. Nahitaezkoa da maskara mantentzea emanaldi osoan. Gomendatzen da umeak ere maskararekin joatea. Sarreran nahiz irteeran taldeak sortzea saiestu behar da. Atea Ipuin-kontalaria hasi baino 30 minutu lehenago irekiko da, jendea ongi koka dadin. Jendeak uneoro jarraitu beharko ditu Kultura-etxeko langileen jarraibideak.

## Ikastaroak



Oinarrizko Gaitasun Digitalei buruzko ikastaroak. Pertsonalak nahiz enplegurako.

I. maila: **IRAILAREN 7TIK 11RA**

Ordua: 9:00 etatik 14:30era.

II. maila: **IRAILAREN 14TIK 18RA**

Ordua: 9:00 etatik 14:30era.

Plaza mugatuak.

**Lekua:** Zangozako Vallesantoro Jauregia/Kultura-etxeko Prestakuntza Aretoa.

**Antolatzailea:** SNE-NL.

**Laguntzailea:** Zangozako Udala.

**Argibideak eta izen-emateak:** formación.navarra.es eta 948 33 61 79.

## Eta urrian... Antzokira itzuliko gara. Gurekin zatoz?



Entzunaretoko kultura-programazioa bat-batean eta tristura handiz eten behar izan zen, martxoan gure bizitzetan sartu zen COVID19ren ustekabeko bisita zela-eta. Orduetik, gogor eta erantzukizunez lan egin dugu Udaleko Kulturaren Alorretik, errealitate berrira egokitu nahian eta agintariak eman dituzten neurriak hartuz, udazkenean antzokietara itzultzea lortzeko.



## Eta urrian... Antzokira itzuliko gara. Gurekin zatoz?



Udan, "**Kultura hurbiletik bizitzeko aukera**" izan dugu espazio irekietan, segurtasun-neurriak modu arduratsu eta zorrotzean aplikatuz. Antzokietarako itzulera ez da izango Entzunaretoa azken aldiz sartu ginenean bezalakoa. Guztiok egongo gara maskara jantzita, edukiera lehen baino mugatuagoa izango da eta segurtasun-tarteak egongo da. Baina berdina izango da aktore, musikari, dantzari eta abarren gaitasuna, beren proposamen artistikoekin gu hunkitzeko, gure barrea eta negarra eragiteko edo intentsitate handiagoz biziarazteko, ahal dela, gure itzulera antzokietara. Udazkena proposamen kulturetz beteta dator, horietako batzuk ezagunak irudituko zaizkizue bere garaian bertan behera utzi behar izan genituelako, beste batzuk berriak dira. Ahoa garbitzen joateko, hona hemen urrian Karmengo Entzunaretoa izango ditugun batzuen aurrerapen bat. Ez ahaztu hitzorduak zuen agendetan idaztea.

**Urriko ikuskizunetarako sarrerak irailaren 29tik aurrera erosi ahal izango dituzue** ohiko bideetatik.



### "Incorrectas"

DEMÓDÉ PRODUKZIOAK

**URRIAK 3, LARUNBATA**

**20:00.**

Demódé Produksioak-en "Incorrectas". Beren garaiko politikarekin, kulturarekin edo ohiturekin "adeigabeak" izan ziren emakume abeslari ezagunen inguruko ikuskizun musikala.

Besteak beste, Janis Joplin, Maria Callas edo Judy Garland bezalako interpreteak eta/edo konpositoreak. Joli Pascualenak, Leire Celestinok eta Paula Azconak ahotsa eta musika jarriko diete.

# Eta urrian... Antzokira itzuliko gara. Gurekin zatoz?



## “Saioak”

BILAKA

Nafarroako Antzoki Sarearen Zirkuitoa

**URRIAK 17, LARUNBATA**

20:00.

“Saioak” euskal dantza tradizionalen arakatsen duen dantza garaikidea, Bilaka dantza konpainiaren eskutik.

## “Maestrissimo”

YLLANA

**URRIAK 24, LARUNBATA**

20:00.

“Maestrissimo”. Musika, keinu-antzerkia eta umorea, Producciones Yllanaren eskutik.

## “La Casa más pequeña”

YARLEKU TEATRO

**URRIAK 25, IGANDEA**

18:00.

Yarleku Teatro konpainiaren “La Casa más pequeña”. FETEN Saria 2019 Eva Azpilikueta, emakumeen interpretazio onenagatik, 6 urtetik gorako haurrentzat eta familientzat gomendatua.

## “Lloviendo ranas”

ADOS TEATRO

Nafarroako Antzoki Sarearen Zirkuitoa

**URRIAK 31, LARUNBATA**

20:00.

Ados Teatro konpainiaren “Lloviendo Ranas”. Gaixotasun mentaltaren diagnostikoa duten edo ez duten 4 pertsona daude eszenan. Hunkitzen gaituen antzezlan honek zein ahulak garen hausnartzen du.

**Laguntzailea:** Nafarroako Gobernu eta Nafarroako Antzoki Sarea.

